

Erref. kodea: LAF-219-191 [45]

Izenburua: Hainbatetik jasotako lanak:

Iturralde, Henri: *Nork bere iritzi... Etxe
izenen idazteaz* [Senpere]

guzuz direnak "caracteres gras" eman behar litazke. M. Laster.

Nork bere iritzi...

ETXE IZENEN IDAZTEAZ

Non nahi entzuten eta ikusten da Euskal Herrian, lehen nahi orain, etxe-izenaz deitzen dugula etxe batetako nagusia hau izan dadin delako etxean bordari ala etxearen jabe.

Alderantziz (1) etxeko nagusiak edo egoiliarrek etxeari bere izena eman diezaioke eta gauza hau ez da maiz aipetzen, zenbait herritan eta usua hori erras hedatua delarik.

Hala nola Senperen hatzemetan ditugun 120 bat etxe, jabeen edo hor bizi izan direnen izenak hartu dituzketenak, dirudienek; aplikatortuz lehenagoko denboretan gertatuz gauza guti dakigula, are gutiago zer getik gertatu diren.

Izen-aldatze horrek oraino dirau karrikan bederen; hone zenbait, idazteko maneraz griaatu gabe ezartzen ditugunak:

- Lekunberria > Mattintea
bilakatzen ari zaigu
 - Elizabidia > Etxegaraitia
 - Xuhurrenia (2) > Ademainia
 - Mariatoinia (2) > Aransteia
 - Xabatxurienia (2) > Matxintea
 - Barberenia (2) > Lafitenia
- eta abar...

Dugun erran urrundu gabe inia/enia (enea/renea) atzizkiez (3) bururatzen direnez kezkatuak gabiltzala artikulutxo honetan. Hobeki erran, izen-hitza (4) bere atzizkiari nola JOSI behar den aztertuta (5) nahi. Atzizki mota hori daukatena etxe-izenak ez bide dira jabeak edo egileak sortzean emankakoak; izatekotz besteek, ingurukoek erabiliaren bortxaz jarririkakoak, itxura guzian arabera segurik.

Ditzagun ikus batzu; lehenik kontsonantez paratzen direnak atzizkiari:

- Kanderantzenia Piarresenia
 - Musumigelenia Ixabelenia
 - Goanesenia Angelesenia
 - Leonenia Danielenia
 - Santsinenia Migelenia
 - Xapelania Xilarrenia
- eta abar...

(6)

Azkeneko -ia hori -ea emanez geroz, ongi dira hola-hola idazteko. Ikus ditzagun orain bokalez (7) presentatzen direnak:

- Apattoinia Arotzainia
- Menttoinia Arroxeinia
- Estebetxoinia Gaxinainia
- Moxkoinia Notariainia
- Predoinia Ademainia
- Ttipitoinia Errientainia
- Xurioinia Harginainia
- Gaxintoinia Medikusainia

Orain arte aipatu etxe-izen horik AHOZKATZEN (8) diren bezalatsu ezarri ditugu; ahozkatzen diren bezalatsu baina ere IDAZTEN ditugun bezala gehienek beti. Ikus ditzagun orain ahozkatzearen eta idaztearen artean gertatzen diren aldatetak zein diren, gaurko lantto honen argitzeko dina bederen. Xuxenago errateko, dugun ikus re arte-silaba (9) zer bilakatzen den Senperen eta itsas aldeko zenbait herritan:

- ore- > oi
 - ottorenean > ottoinian
 - ottorene > ottoine
 - ottorentzat > ottointzat
 - norekin > noikin
 - norentzat > nointzat
- eta abar....

- ere- > ei
 - emarenean > emainian
 - emarena > emaine
 - emarentzat > emaintzat
 - harenean > hainian
 - zarezte > zainte
 - garelakotz > gailakotz
- eta abar...

Bi sailhorietañ ehoketxe aldaketek argi eta garbi daude : ez diegu salbuespenik (10) ere aurkitu ! Beraz "ottorenean" idazten dena ehoketxeen "ottoinian" bihurtzen balin bada, gisa berean onartu behar dugu idaztean : Apattorenea, Manttorenea, Estebetxorenea, Moxkorenea, Predorenea (11), Ttipitorenea, Xuriorenea, Gaxintorenea, Arotzarenea, Arroxa-renea, Gaxinarenea, Notariarenea, Adema-renea, Errientarenea, Harginarenea, Medikurenea, Maristorenea eta abar... (12)

Hau dugu aldebaina izen propioen deklinabidea (13).
 Gelditzen zaizkigu oraino i/u/e-rekin bururatzen direnak :
 Dendarienia = Dendarirenea, Gixonkienia = Gixonkirenea, Betrienia = Betrireneña, Murgienia = Murgirenea, Puttuenia = Putturenea, Larruenia = Larrurenea, Reketenia = Reketereña. Bestalde bada Senperen Xoperenia. Jasepene-tik balin baletor biziki ederki idatzia liteke, JOSTURARI dagokionez : Xopereña !

Ikusi behar dugu ere gaiaren itzulia doi bat osatzeko, etxe-izen jada aldatu (?) horiek beren "baitakoei" izena pasatu dietela eta maizenik ongi idatzirik datozkigula, delako JOSTURAZ den bezenbatean :
 Arotzareña, Harotçareña, Este-coreña, Chotilareña, Joantoreña, Mikelesto-reña, Marticoreña eta Senperetik kanpo : Perureña, Jaunareña, Semereña eta abar...

Lantto honetan guzian hauxe erran nahi dugu : idaztea eta ehoketxea BI GAUZA direla. Baték ala besteék beren legeék badauzkatela ontsalez ezagutu behar genituzkeenek errotik Euskaratzaz axolarik balin badugu segurik. Idatz lege haúk ez dira gaur guk esmaturikoeák baina egundainotik idazle onek erabiliek izen propioek deklinatzean.

Oraino hobeki adierazteko geure helburus garbiki diogu **eneñ stiziki** hori biziki itsusia zaigula, bereziki murratxo baten ondotik datorrenean, adibidez : Pello-eneñ edo Erretora-eneñ. Makur dela erakutsi dugu idatz-legearen arabera. Hobe liteke denik ere ehoketxeen den bezala uzteslezen ez eta murratxo batez bereizirik. **eneñ** horrek badu halako berekoi kutsu bat nehondik ere ehoketxeen adierazten ez duguna eta gure etxe zeharren ohiko etezabelkortasunari (14) batera ez doakione.

Garbi dago stiziki horrek "hareña/n" edo "hareña" erran nahi duela **eta eneñ** edo **nereñ**. Beraz zertako erranaraz IDAZKIARI gogoan ez duguna ehoketxeen erraten ez duguna ?

Beldurrik gabe idatz dezagun beraz Erretora-reña, Pello-reña eta abar... Nor beraren izen deiturak nekez aldatzen dira ; etxearena aldiz, gure nahiari dagokio.

Xuxentze haúk ez dira bekerrik Senperekotzat aipetzen. Edozein herrirentzat gauze bere erraten halako zen ehoketxe legeék ezagutuz geroz. Ez omen da behin ere berantegi ongi egiteko... Eian zer oihartzun izanen duten gure oharpenek ?

Henri Iturralde

- (1) Inversement
- (2) Etxe izen haúk ez ote dira jada aldatuak izanak ?
- (3) Suffixe
- (4) Nom propre
- (5) Examiner
- (6) Consonne
- (7) Voyelle
- (8) Prononciation
- (9) Inter-syllabe
- (10) Exception
- (11) Predo ala Pedro behar litekeen ez gara gaur izen-hitzez ari.
- (12) Ikusten denez "non" adierazten duen "n" hura etxe izenetañ galtzen dela. Ongi da hola, bereizkuntza egiteko : Apattorenea etxe-izena batetik eta bestetik Apattorenean "hango" zerbeit aipatzeko.
- (13) Génitif Possessif
- (14) Hospitalité

